



HIZKUNTZA EREDUEI BURUZKO IRIZPIDEAK

Hezkuntza arloan eztabaida ari da zabaltzen hizkuntza ereduen inguruan. BIHE, Bigarren Hezkuntzako Zuzendari Elkarteak, honako irizpideak hobesten ditu eztabaida honetan:

1. Arlo honetan arretaz begiratu behar zaio **Euskal Eskola Publikoaren Legeak** ezarritako helburuari: *“Ikasle guztiek, baldintza beretan, derrigorrezko irakaskuntza-aldia bukatzean, bi hizkuntza ofizialen ezagupen praktikoa izango dutela bermatzea, euskararen erabilera bultzatuz eta normalkuntzari lagunduz”*. Helburu hau lortzeari oso garrantzitsua irizten diogu, integrazioa, berdintasuna eta kohesio soziala, edozein gizarte demokratikok benetan sustatu behar dituen helburuak, lortu nahi badira.

2. Horregatik, hizkuntza ereduetan oinarritutako **sistema aldatzearekin ados** gaude, hizkuntza trataera eta hezkuntza sisteman hobekuntza eta egokitze beharra dagoelako, nabarmena baita gure Hezkuntza sisteman derrigorrezko eskolaldia amaitzen duten ikasle guztiek ez dutela lortzen bi hizkuntzen ezagutza praktikoa.

3. Ikastetxe guztietan hobekuntza beharra dagoen arren, argi dago orain artean hizkuntzen trataeran **hutsune handienak A ereduan** egon direla, aurreko helburua ezer gutxitan utziz. Hori da aldaerarik nabarienak jaso behar dituen hezkuntza ereduak.

4. Hezkuntza sistemak hizkuntzen trataerarako beharrezkoa du **ahozkotasuna** lantzeko prozedurak bermatzea, “ezagupen praktikoa” izan behar badu. Hau bereziki garrantzitsua da euskararen kasuan.

5. Ildo honetatik, funtsezkoa da eskolaratze lehen urteetatik beraietatik euskararen **murgiltze prozedurak** orokortzea, etapa honek eskaintzen dituen aukerak probetxatu aldera.

6. Euskararen **normalkuntza proiektuak** indartu eta bultzatuko dira hizkuntza trataera berrian.

7. Ikasle guztiek bi hizkuntza ofizial modu egokian ezagutzeak integrazioarako, berdintasunerako eta gizarte kohesiorako bidea zabaltzen duenez, **ikasle etorkinak** ezin dira helburu honetatik kanpo geratu. Erronka garrantzitsua da hezkuntza sistema eta gizarte osoarentzat hauen integrazio osoa ahalbidetuko duen heziketa-erantzuna eskaintzea; besteak beste, bi hizkuntza ofizialen ezagutza egokia bermatuz.

8. Hizkuntza aldetiko helburua handia bada (“ikasle guztiek, bi hizkuntzen ezagupena”), horretarako bideratu beharreko **baliabideak** ere handiak izan behar dira.